

AURKIBIDEA

URTEAN ZEHARREKO II. IGANDEA	4
URTEAN ZEHARREKO III. IGANDEA	10
URTEAN ZEHARREKO IV. IGANDEA	16
URTEAN ZEHARREKO V. IGANDEA	22
URTEAN ZEHARREKO VI. IGANDEA	28
URTEAN ZEHARREKO VII. IGANDEA	34
URTEAN ZEHARREKO VIII. IGANDEA	40
URTEAN ZEHARREKO IX. IGANDEA	46
URTEAN ZEHARREKO X. IGANDEA	52
URTEAN ZEHARREKO XI. IGANDEA	58
URTEAN ZEHARREKO XII. IGANDEA	64
URTEAN ZEHARREKO XIII. IGANDEA	70
ERANSKINAK:	
I. Hasierako agurra kantuz egiteko doinuak	76
II. Damu-otoitzerako beste era batzuk	77
III. Fede-aitormena	78
IV. Letania-erako esker-otoitzak	80
V. Bedeinkapen-eskaria kantuz egiteko doinuak	94
VI. Azken-agurra egiteko doinuak	95

URTEAN ZEHARREKO II. IGANDEA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

Guztiak erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Urtean Zeharreko igandeei heltzen diegu gaurtik hasi eta Garizuma arte. Jesusen predikuak gure bizitzarako argitasuna dakar, gure bizitza emankor egiten du eta, bere salbamenaren berri pozgarria geureganatzen eta bizitzen laguntzen digu. Horregatik biltzen gara Jaunaren eguna pozez beterik ospatzera.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: Erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure ardurapean dituzu zeru-lurrak;
entzun bihotz onez zeure herriaren otoitza
eta eman zeure bakea gure egunotan.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A urtean Joaneke, Jesus bataiatu ondoren, hartaz eman zuen testigantza kontatzen du Ebanjelioak: Jainkoaren aukeratua da Jesus. (*Eb.*) Irakurketa profetikoak, bere aldetik, Jaunak «herrialdeen argi» (*1. ir.*) izateko aukeratu zuen Yahveren Zerbitzari misterioitsua aurkezten digu. San Paulok Korintoarrei idatzitako lehenengo gutuna irakurtzen hasiko gara gaur. Gutun horretan, apostolutzarako bere bokazioaren jainkozko izaera nabarmentzen du Paulok, eta beraiek ere Kristogan deituak izan direla gogoratzen die kristauei (*2. ir.*).

B urtean Jesusek bere Bataioaren ostean, lehenengo ikasle izango dituenak –Joan, Andres eta Pedro– nola aurkitu zituen azaltzen digu Ebanjelioak (*Eb.*). Itun Zaharreko irakurgaiak, bestalde, Jaunak Samueli, hau artean oso gaztea zelarik, egindako lehenengo deia gogoratzen digu (*1. ir.*). San Paulok Korintoarrei idatzitako lehenengo gutunaren irakurketari ekingo diogu berriro. Kristoren fededunak hiri pagano handiko lasaikeria-giroaren aurka ohartarazteko, beraien gorputzak Kristoren gorputzeko atal eta Espiritu Santuaren tenplu direla gogorarazten die (*2. ir.*).

C urtean Ebanjelioak aipatzen duen Kanako miraria, Jesusek egindako lehenengo ezaugarria da, eta, aldi berean, Eukaristiaren urrutiko iragarpena eta Kristok giza ezkontza bedeinkatzen dueneko ezaugarria (*Eb.*). Lehenengo irakurgaiak azken alderdi hau nabarmendu nahi du (*1. ir.*). San Paulok, Korintoarrei idatzitako lehenengo gutuneko pasarteak, guztiz banandua zegoen elkartari zuzentzean, zera azpimarratzen du: Elizan ministeritzak era askotakoak diren arren, Espiritu bakarretik datozela denak (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 2.** liburuko 25-32. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Jesus dugu egiazko gurtzaren eredu: Aitarekin maitasun-harremana izaten irakasten diguna. Bera da egiazko Bildotsa Jainkoaren Salbamena kontaezin ahaleko ezaugarri agertzen diguna. Orain gurtzera goazen Ogi Santua da egiazko ezaugarri handiena, bera Gorputza baita gure artean duguna.

Hiru eratara egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℞. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Isuri gugana, Jauna, zeure maitasun-espirtua,
bizia ematen duen ogi zerutar bat beraz janaritu gaituzunok
bat izan gaitezen bihotzez maitasunean.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

URTEAN ZEHARREKO III. IGANDEA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gorets dezagun Jauna
eta denok batera bedeinka dezagun Haren izena.

Guztiak erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Zuzendariak jarraituko du:

Igande bakoitza da Pazkoaren ospakizuna: Jesusen piztuera oroitu eta eskertzeko eguna. Horregatik, gaur Eukaristia ospatzerik ez badugu ere, fedea ospatzera bildu gara elkartean, gure bizitza Jaunarentzat gorazarre egin nahian eta Jaunari bere nahia betez bizitzeko indarra eskatzera.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Jesus Jaunak igandeko batzarrerara dei egiten digu eta, horretarako, bihotz-berri gaitzela eskatzen. Aitor ditzagun, beraz, geure bekatuak eta eska dezagun uste osoz Jainkoaren errukia.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, Aitagana garamatzan bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, herri guztiak argitzen dituen egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua eraberritzen duen bizia: Erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zuzendu zeure gogara gure jarduera,
zure Seme maitearen izenean
fruitu on ugari eman dezagun.

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A urtean

San Mateok, Ebanjelioan, Jesusek Galilean bete zuen ministerioaren kontaketa hasteko, egunen batean Galilean argi handi batek distira egingo zuela baieztatzen zuen Isaiasen profezia, aipatzen du. (*Eb.*). Israelgo atzerriratuen askapena eragingo duen Jaunaren Eguna hurbil dela iragartzen duen Isaiasen profezia hori dakarkigu lehenengo irakurgaiak (*1. ir.*). San Paulo, Korintoko eliz elkarte urratzen zuten banaketen aurka azaltzen da eta iritzi bat-berekoak izateko eskatzen die kristauei, denak baitziren Kristoren gurutzaren bidez salbatuak (*2. ir.*).

B urtean

San Markosen eskutik, Ebanjelioan, Jaunaren predikuaren hastapenak entzungo ditugu: «Bihotz-berri zaitetze, dio Jesusek, eta sinetsi Berri Ona» (*Eb.*). Lehenengo irakurgaiaren arabera, Jonasek Ninive hiri bekataria, zuzentzen dion bihotz-berritzeko deia bera da (*1. ir.*). Kristauak lasaieria-giroaren aurka ohartarazi ondoren, gaurko munduko ondasunei gogor ez lotzeko esaten die San Paulok, «mundu honetako aurkezpena amaitze» dago eta (*2. ir.*).

C urtean

San Lukasek, lehenengo eta behin, bere Ebanjelioa osatzeko erabili duen bidea erakusten du, eta gero Nazaretoko sinagogan Liburu Santuak azaltzen aurkezten digu Jesus (*Eb.*). Dena dela, lehenengo irakurgaiak adierazten duenez, Esdras idazlariak hasia zuen jadanik Kristo baino bost mende lehenago, Jainkoaren hitzaren aldarrikapen hori (*1. ir.*). Kristauei eliz elkarteko zerbitzuen aniztasuna eta Kristogandik datorren eraginaren batasuna ulertarazteko arduraz, gorputzaren eta honen atalen parabola erabiltzen du San Paulok, baieztapen honekin bukatzeko: «Zuek zarete Kristoren gorputza» (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 2.** liburuko 54-63. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagraiotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Jesusen Ebanjelioa zabaltzeko gogo berarekin partekatzeko deia egiten zaigu, bere Hitza geure egin nahi izatekoa. Jaunartzea horretarako indar eta laguntza gertatzen zaigu. Gurtu dezagun lehenengo, bizia ematen digun Ogia.

Hiru erataraz egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Jainkoak, Espiritu Santuaren bidez, bere seme-alaba egin gaitu; horregatik, konfiantzaz, esan dezagun Kristok irakatsitako otoitza:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Jainkoaren seme-alaba garenez, eman diezaiogun elkarri senide-batasunaren ezaugarria.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du. Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Jainko ahalguztiduna,
bizi berriaren grazia eman diguzu;
egizu, poztu gaitzela beti dohain honetaz.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

URTEAN ZEHARREKO IV. IGANDEA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

Guztiak erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Aitortzen dugun fedeak, Jaunaren batzar santuan biltzera eragiten digu, bertan iragartzen eta ospatzen delarik *Jaunaren egun handia*. Gizaki guztiak Jaunaren onginahi-begiradaz begiratu eta maitatzeko indarra eska dezagun ospakizun pozgarri honetan.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrean garelara, bekaturako hilik bizi berrira piztu gaitezen.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren betea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behartsu egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera etorri zarena: Erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiak, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Jainko gure Jauna,
egizu, gur zaitzagula bihotz-bihotzez
eta maita ditzagula gizon-emakume guztiak
egiazko maitasunez.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A urtean Zoriontasunen Ebanjelioa nagusitzen da hitzaren liturgia osoan, Jesusek mendian egindako hitzaldiaren hasierarekin (*Eb.*). Sofoniasen profezian entzungo dugunez, Jainkoak bere herriarekin erabili zuen hizkera bera erabili zuen Jesusek apalak eta behartsuak zorioneko aitortzean (*1. ir.*). Hizkera hori bera erabiltzen du San Paulok ere; lehenengo deituak txikiak dira beti, munduak baztertzen dituenak; baina Kristogan handi bihurtzen dira.

B urtean Ebanjelioan, Jesusek aginte handiz ematen duen irakaspen berriaz harrিতua ikusten dugu jendetza (*Eb.*). Nazaretoko Jesus, Moisesek iragarritako profeta handia dela sumatzen dute. (*1. ir.*): Jainkoak hitz egiten du beragan. Guk badakigu profeta baino gehiago dela: Jainkoaren Hitza gizon egina. San Paulok mundu honetako bizia baino harantzago bideratzen ditu kristauak, Jainkoari oso-osorik sagaratu bizitzea dakarren zelibatua aldarrikatuz (*2. ir.*).

C urtean Jaunak askoren aurkakotasuna izango duela iragartzen duen Jeremias profetaren bokazioa aipatzen du lehenengo irakurgaiak (*1. ir.*). Jesusek antzeko aurkakotasuna aurkituko du bere herri Nazareten; baina gaitzespen honek askapena zekarren, beste batzuei Berri Ona eramateko adorea ematen zion eta (*Eb.*). San Paulok, lehengo igandeko zatian, kristauei, edozein izanik ere beren egitekoa, Kristogan gorputz bakarra zirela gogoratu ondoren, elkarmaitasuna bizikidetzaren legea dela esaten du gaurkoan (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 2.** liburuko 86-94. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Jesusekin topo egitea beti da salbagarria: zorioneko nahi gaitu, adorez betetzen gaitu, bere herriaren erdian testigu izatera bidaltzen gaitu. Eska dezagun orain, Ogi Santuak ematen digun indar hori. Gurtu dezagun pozez Jauna.

Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Jainkoak bere maitasuna isuri digu bihotzera, eman digun Espiritu Santuaren bitartez; beraz, fedez eta itxaropenez, esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Kristok elkarren senide egin baitu bere gurutzeaz; adiskidetzearen ezaugarri, emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.

Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Indarberritu egin gaituzu, Jauna,
gure erospeneko sakramentuaren bidez;
egizu, betiereko salbamenaren janari honi esker,
egin dezagula beti aurrera egiazko fedean.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

URTEAN ZEHARREKO V. IGANDEA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gorets dezagun Jauna
eta denok batera bedeinka dezagun Haren izena.

Guztiak erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Zuzendariak jarraituko du:

Jaunaren eguna den igandea ospatzean gure sortzailea bedeinkatzen eta gurtzen dugu elkarrekin. Eska diezaiogun beragandik gertu sentitzea eta Jesusen piztuerak dakarren alaitasuna partekatzeko grazia.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Igandeko batzar honen hasieran, eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, gu kondenatzera ez, baizik salbatzera etorri zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bihotz-berritzen den bekatari bakar batengatik, zeruan poz handia izango dela esan zenuena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, asko maite izan duenari asko barkatzen diozuna: Erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Zaindu familia hau, Jauna, zeure betiko maitasunez;
eta gure esperantzaren oinarri bakarra
zure grazia zerutarra denez gero,
har gaitzazu beti zeure babespean.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A urtean Jesusek hau diosku gaur: «Zuek zarete lurraren gatza. Zuek zarete munduaren argia» (*Eb.*). Kristauek munduan sartu behar duten legamia eta eman behar duten testigantza, eta behartsuekiko, hau da ogi-, kultura- edo maitasun-gose denarekiko, elkarmaitasuna dira. Horixe zen, lehenengo irakurgaiaren arabera, Itun Zaharreko irakaspena ere (*1. ir.*). San Paulok, Korintoko fededunei beren izaera apala gogoratzean, honela aurkezten die bere burua: giza baliabiderik gabeko, baina gizakiei iragartzen dien Jesusen gurutzeaz betetako gizona dela esaten die (*2. ir.*).

B urtean Lehenengo irakurgaian, Jobi oinazeak larritutako gizonaren kexua darion bitartean (*1. ir.*), Jesusek, Ebanjelioan, gaiztakeriaren indarren gainean duen agintea baieztatzen du, gaixoak sendatzen eta Satanen agindupean dauden guztiak askatzen dituenean (*Eb.*). Gutunean, Ebanjelioa iragartzeko Jainkoaren indarrak bultzatuta bezala agertzen zaigu San Paulo. Guztiei buruz askea delarik, ebanjelizatze honetarako, guztien zerbitzari bihurtzen da, ahalik eta jende gehien erakartzeko asmoz (*2. ir.*).

C urtean Jeremiasen bokazioa entzun genuen joan zen igandean. Gaurkoan, Jainkoak egin zion deia kontatzen digu Isaias profetak (*1. ir.*). Horrela, hobeto uler dezakegu Jesusek giza arrantzale egin nahi izan zituen Pedro, Santiago eta Joanen bokazioa (*Eb.*). Apostoluek, beraz, antzinako profeten tokia hartzen dute. San Paulok, korintoarrei zuzendutako heziketa hitzekin jarraituz, bere apostolutzaren muina azaltzen du, hau da, apostolu guztiek bizi izan duten Kristoren piztuera iragartzea (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 2.** liburuko 118-126. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagraiotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Ebanjelioa biziz, Jainkoaren onginahiaren irudi izatera deituak gara; izan ere, Jesusekin guztiz bat eginez gure bizitzaren alderdi guztietan ondu gaitzke. Bihotz-berritzeko gogoz gerturatuko gara laster jaunartzera.

Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Jaunaren otorduko mahaira hurbildu aurretik, esan dezagun elkaturik berak irakatsitako otoitza:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Kristo berpiztuaren Espirituaz, emaozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagratoria jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Oi Jainko, ogi eta kaliza berean guk parte hartzea nahi izan duzu;
egizu, Kristorekin gorputz berean bat eginik,
eman dezagula pozik betiko fruitu ugari
munduaren salbamenerako.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

Oharririk egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

URTEAN ZEHARREKO VI. IGANDEA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

Guztiak erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Igandean, Kristoren heriotza-piztueraren argitan geure ahultasunaz jabetzeko eta Jainkoaren laguntza eta babesa eskatzeko aukera dugu. Sarritan geu izaten gara geure buruen etsairik handienak eta Jesusen maitasunak eta ereduak maitasun handiagoz bizitzen lagun diezaguke.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Hurbil gaitezen Jainko zuzenagana, apalik eta bihotz-damuturik, eta, geure burua bekatari aitortuz, eska diezaiogun errukia Jainkoari.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, galdurik zegoena bilatzera etorri zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guztion erospenerako zeure bizia eman duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure seme-alaba sakabanatuak biltzen dituzuna: Erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Oi Jainko,
bihotz garbi eta zintzoengan biziko zarela agindu duzu;
zeure graziari esker,
egin gaitzazu zure bizileku izateko gai.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A urtean Jesusek lege berria aldarrikatzen du gaurkoan. Lege honek ez du indargabetzen Jainkoak bere herriari, erabateko askatasuna lor zezan, aman zion legea (1. ir.), baizik eta osatu egiten du, barneko jarrera azpimarratuz: gizakiak bere bihotzean jartzen ditu jokoan Jainkoarekiko leialtasuna eta besteekiko irekitasuna (Eb.). Gutunean, giza baliabiderik ez duela, dio San Paulok, eta, hala ere, Jainkoak, bere jakindurian, betidanik izan duen salbamen-asmoa agertu diola Espiritu Santuak (2. ir.).

B urtean Lehenengo irakurgaiaren eta Ebanjelioaren arteko lotura esanguratsua da beti. Gaurkoan, lege zaharreko gaixo legenardunei buruzko aginduak gogoratzeak (1. ir.), Jesusek legearen aurrean duen askatasuna eta, era berean, harekiko begirunea hobeto ulertzeko aukera ematen digu (Eb.). Guri dagokigunez, bekatua da legenarra. Gutunean, bera eredutzat hartzeko deia egiten digu San Paulok. Harrokeriarik gabe erabil ditzake horrelako adierazpenak, ondorengo hau gehitzen baitu «Nik Kristo dut eredu» (2. ir.).

C urtean San Lukasen arabera zorientasun bakoitzari madarikazio bat kontra jartzen zaio: «Zorionekoak behartsuak... Ai zuek, aberatsok» (Eb.). Jesusen esamoldea lehenengo irakurgaiaren entzun dugunaren antzekoa da: «Madarikatua bere ustea gizakiagan jartzen duena. Zorionekoa Jaunagan bere ustea duena». (1. ir.). Honek guztiak aitzakiatan eta erdizka ibiltzetik ihes egiteko deia dakar guretzat. Joan zen igandean, Kristo berpiztuaren adierazpenak gogoratzen zizkigun San Paulok; horixe bera hartzen du gaur oinarriztat, hildako guztien piztuera sendo baieztatzeko (2. ir.).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 2.** liburuko 149-157. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Jesusen jokabidea erruki hutsa da, guri konfiantza eta sendotasuna ematen diguna. Berarekin bete-betean bat eginda biziz Erreinuaren testigantza ematera deitzen gaitu. Bere Hitza eta Ogi santua partekatzeak laguntzen digu senitarte- eta karitate-giroan bizitzen. Gorets dezagun orain, esker onez.

Hiru eratara egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Guk ez dakigu Jainkoari zer eta nola eskatu; baina bihotzean dugun haren Espirituak otoitz hau jartzen digu ezpainetan:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℞. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Jauna, zerutar ogi osasungarria eman diguzu janari;
egizu, bila ditzagula guk ere beti
egiazko bizia ematen diguten ondasunak.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

URTEAN ZEHARREKO VII. IGANDEA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gorets dezagun Jauna
eta denok batera bedeinka dezagun Haren izena.

Guztiak erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Zuzendariak jarraituko du:

Senideok: Jaunaren errukia goraiatzeko egokiera dugu igandeko ospakizun honetan, berak eusten digu eta eskutik garamatza beti. Jainkoaren hitza entzungo dugu eta Eukaristiako Ogi santua jatera hurbilduko gara. Gure artean da Jauna, ospa dezagun pozik.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Jesu Kristo, bekaturik ez duen gure bitartekoa, otoitzean ari da gure alde eta adiskidetu egiten gaitu Aitarekin. Ireki dezagun, bada, geure espiritua damurako, Jaunaren mahaira hurbiltzeko gai izan gaitezen.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, Pedro damutuari barkamena eskaini zeniona: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, lapur onari paradisua agindu zeniona: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatuen barkamenerako apostoluei Espiritu Santua eman zeniena: Erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Jainko ahalguztiduna, zure laguntzak egin gaitzala gai,
beti zuzen dena hausnartuz,
Zuri atsegin zaizuna hitzez eta egitez betetzeko.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A urtean Kristauaren bizitza-egitasmoa aurkezten jarritzen du Jesusek Ebanjelioan; lege zaharrak adiskidea nork bere burua bezala maitatzea agintzen zuen bitartean (*1. ir.*), Jesusen legeak gure etsaiak ere maitatu behar ditugula esaten du (*Eb.*). Baina irakurgai biek bat egiten dute, Jainko santu (*1. ir.*) eta ezin hobia (*2. ir.*) imitatzea proposatzen digutenean. Harrokeriaren aurka ohartarazi gintuen San Paulok, gure handitasuna gogoratzen digu gaur: Kristorenak gara, Espiritu Santua gugan bizi da, Jainkoaren tenplu gara (*2. ir.*).

B urtean Ebanjelioak Jesusen mirarien zergatia ikusarazten digu. Sufritzen dutenekiko Jesusek duen arduraren adierazpen dira mirariak; are gehiago, gizakiaren barnean gertatutako sendaketaren kanpoko adierazle dira –gaurko Ebanjelioari dagokionez, bekatuaren barkamenaren adierazle– (*Eb.*). Jesus bera da, lehendik bere burua barkatzaile bezala ezagutzera eman zuen Jainkoaren agerpena (*1. ir.*). San Paulok, Jainkoaren agerpenaren beste alderdi bat aurkezten digu Jesusengan: Kristoren leialtasunaren erdua ematean, leialtasuna gure bizitzako oinarritzat hartzeko deia luzatzen digu leiala den Jainkoak (*2. ir.*).

C urtean Jesusen predikuari hasiera ematen dion mendiko hitzaldiak, San Lukasen Ebanjelioaren arabera, elkarmaitasunaren legea nabarmentzen du: etsaienganako maitasuna, elkarri lagundu, barkatu... (*Eb.*). Antzinako gizakien arteko onenek gauzatu zuten jarrera ezartzen du legetzat. Horrela, Davidek, bera hil nahi zuen Saulen aurkako mendekuari uko egiten diola ikusiko dugu lehenengo irakurgaian (*1. ir.*). Gizon-emakume guztiak Kristogan berpiztuko direla dioen predikuarekin jarraituz, San Paulok Jainkoarentzat bizi den gizadi berriaren Jaun bezala, Adam berri bezala, aurkezten digu Jesus (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 2.** liburuko 178-185. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Aitaren ontasuna sarritan aipatzen du Jesusek, eta maitasun neurrigabe horretatik ikasteko deia egiten digu. Itun berriaren ogia hartu aurretik, gurtu dezagun esker onez maitasunaren iturria den Jainkoa.

Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Eska diezaiozun zeruetako Aitari geure bekatuen barkamena eta eman diezagula bihotz zabala, guk ere geure zordunei barkatzeko:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Jainkoaren seme-alaba garenez, eman diezaiozun elkarri senide-batasunaren ezaugarria.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Jainko ahalguztiduna,
salbamen-sakramentu honetan eman diguzun ogia
izan dezagula betiko biziaren ezaugarri.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

URTEAN ZEHARREKO VIII. IGANDEA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

Guztiak erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Senideok: Jaunaren eguna dugun igandea gizakion eguna ere bada. Asteko lehen egun hartan, Pazko Igande santuan askatuak izan baikinen guztiok Jesus Jaunaren piztueraz. Horregatik *ezin gara bizi igandea ospatu gabe*. Eskertu diezaiogun Jaunari gaur ere hemen bildu izana.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Aitor dezagun bekatari garela eta eska diezaiogun apalik barkamena zeruetako Aitari, guk ere geure senideei bihotzez barkatuz.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, behartsuen alde zaudena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, indargabeen babesleku zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatarien itxaropen zaituguna: Erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltzua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Egizu, Jauna, mundu honetako gorabeherak bidera ditzagula zure asmoen arabera zuzentasunean eta bakean, eta emaiozu Elizari zure zerbitzu santuan zintzo irauteko poza.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A urtean Jesusek Ebanjelioan, idolatria eragiten duen diruaren gurtzatik aldentzeko eta bere seme-alabekiko ardura erakusten duen Jainkoagan konfiantza izateko deia egiten digu (*Eb.*). Profetak ere, lehenengo irakurgaietan, Jainkoaren ardura hau azaltzen du, samurtasun apartarekin: Jainkoaren maitasuna amaren maitasuna baino sendoagoa da (*1. ir.*). Gutunean, ez duela gizakiek epairik onartzen esaten die Paulok aurka egiten dioten kristau batzuei: Kristoren zerbitzari naiz, dio, Jauna da nire epailea (*2. ir.*).

B urtean Jainkoak, senar-emazteen arteko maitasuna aukeratu zuen gudanako bere maitasunaren irudi egokitizat. Lehenengo irakurgaiak, leiala ez den emazte batekin alderatzen du Israel; hala ere, Jauna prest dago, emazte desleial hori, gaztaroko urteetako samurtasunaz berriro hartzeko (*1. ir.*). Ebanjelioan, Jesusek senar bezala aurkezten du bere burua; herriari poztasuna ematen dion Jainkoa da bera (*Eb.*). San Paulok, ezusteko irudi baten bidez, Jainkoak idazten duen gutun biziarekin alderatzen du kristaua, gizaki guztiek irakurri ahal dezaten: Jainkoak munduari zuzentzen dion mezua da kristaua (*2. ir.*).

C urtean Gaurko Ebanjelioak hiru parabola labur biltzen ditu: beste itsu baten gidari den itsuarena, lastoa eta habearena eta bere fruituez ezagutzen den zuhaitzarena (*Eb.*). Lehenengo irakurgaiak azken parabola hau argitu nahi du, gizakiaren hitzak beraren nortasuna adierazten duela gogoratuz (*1. ir.*). San Paulok garaipen-oihu batez eta eskerrak emanez bukatzen du piztuerari buruzko azalpena, Kristoren bidez heriotzaren gain lortu dugun garaipenagatik (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 2.** liburuko 206-212. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Kristau-bizitza, ituna, komunioa, Jainkoarekin bat egitea da, bereziki. Baita batasun horren fruituak senideekiko zerbitzuan ematea ere. Mahai santuko ogia hartu aurretik, egin dezagun esker onezko otoitza.

Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Jesusek irakasten digunez, eska diezaiogun zeruetako Aitari, etor dadila beraren erreinua gure gizartera:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Kristok elkarren senide egin baitu bere gurutzeaz; adiskidetzearen ezaugarri, emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Zure dohain salbagarriak harturik,
apalik eskatzen dugu, Jauna, zure errukia,
orain janarizat sakramentu hau ematen diguzun bezala,
zeure bihotz onez betiko biziaren jabe egin gaitzazula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

URTEAN ZEHARREKO IX. IGANDEA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gorets dezagun Jauna
eta denok batera bedeinka dezagun Haren izena.

Guztiak erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Zuzendariak jarraituko du:

Senideok: Jesusen Pazkotik berri on asko datorkigu kristauoi: Jainkoa maitasuna dela horietako bat. Elkar maitasunaren eguna ere badugu igandea, elkarre bereko sentitzeko eguna, eta elkartasun hori sendo diezagula Jaunari eskatzeko eguna.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Igandeko ospakizun honen hasieran, eska diezaiozun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, gure bakea zarena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guretzat ogi egin zinena. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bizia ematen diguzuna. Erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Oi Jainko, munduarekiko duzun zeure ardura santuaz, ez duzu inoiz salbamen-asmoari dagokionean huts egiten; kendu kalterako duguna eta eman on egingo digun guztia.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A urtean Jauna ez da hitz hutsez asetzen, beraren borondatea bete dezagun nahi du: horrela bakarrik eraikiko da gure bizitza harri gainean. Hori da Ebanjelioak irakasten diguna (*Eb.*). Gainera, Moisesek basamortuan Jainkoaren herriari hitz egiteko erabili ohi zuen hizkuntza bera da. (*1. ir.*) Gaurkoarekin, San Paulok erromatarrei zuzendutako gutunaren irakurketa hasiko dugu. Ez gaituela lege zaharra betetzeak salbatu, dio, doan berrerosi gaituen Jesu Kristoganako fedea baizik (*2. ir.*).

B urtean Zazpigarren egunean, larunbatean, atsedena ezartzen zuen legea Jainkoak aldarrikatua zen (*1. ir.*). Jesus, ordea, oinarrizko lege horren gain nagusi agertuz, Jainkoaren Semea izateagatik duen aginpidea agertzen du, gaixotasunaren gain ere nagusi agertzen delarik. (*Eb.*) Gutunean, San Paulok, Kristoren benetako apostoluaren argazki hunkigarria erakutsiko digu: bere burua besteei oso-osorik eskainirik, bere makaltasunean Jesusen agonian parte hartuko du, baina, aldi berean, Pazkoan Berpiztuaren indarra emango die besteei (*2. ir.*).

C urtean Eraiki berria zen Tenpluaren sagarapena egin zuenean, atzerritarren otoitza beti entzuteko eskatu zion Salomonek Jaunari (*1. ir.*). Horixe egingo du Jaunak okupatzaileen gudarosteko erromatar ehuntari jentilaren morroia sendatuko duenean (*Eb.*). San Paulok, berak iragarritakoa ez bezalako Ebanjelioa iragartzen zutenen aurka oharrarazteko, Galaziako kristauei zuzendu zien gutuna irakurtzen hasiko gara (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIK 2.** liburuko 234-241. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Denek onartu ez bazuten ere, fede harrigarritz gerturatu zen hainbat pertsona Jesusengana, Ebanjelioan zehar ikusten dugunez. Fedearen dohain eder hori eskatu behar dugu etengabe. Orain ere, Jauna gurtzean esan diezaiozun: «Sendotu, Jauna, gure sinesmena».

Hiru erataria egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Familia bereko anai-arreba garenez, esan diezaiogun elkarturik guztion Aitari:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Kristo berpiztuaren Espirituaz, emaozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi ganean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℟. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Gida gaitzazu, Jauna, zeure Espirituaz,
zeure Semearen Gorputz Odolez janaritu gaituzunok,
Zu egitez eta benetan aitorturik,
eta ez mingainez eta hitzez bakarrik,
zeruetako erreinuan sartzea lor dezagun.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

URTEAN ZEHARREKO X. IGANDEA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

✠. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

Guztiak erantzungo dute:

✠. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Senideok: Gauza bikain asko ospatzen dugu igandean, Kristo piztuaren egunean. Izadiaren eguna ere bada hau. Jainkoak mundua opari eman zigula ospatzeko eta mundu eder hau zaintzeko ardura gurea dela gogoratzeko eguna. Guztiagatik esker onez bizitzen ikasteko eguna.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrean garela, bekaturako hilik bizi berrira piztu gaitezen.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren betea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behartsu egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera etorri zarena: Erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

On guztien iturri zaren Jainkoa,
entzun onez gure otoitza,
eta egizu, Zuk argiturik, jakin dezagula zer den zuzena
eta, Zuk eraginik, bete dezagula.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A urtean

Mateok erlijioaren kontrako lanbidea zuen; agintari erromatarrekin lankidetzan jarduten zuen. Jesusek berari jarraitzeko esaten dionean, hau jakintzari nahi du: ez dela zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik (*Eb.*). Lehenengo irakurgaian oso-osorik irakur dezakegun errukiari buruzko Oseas profetaren testua aipatuz, bere jarrera azaltzen du Jaunak. (*1. ir.*). Fedearen bidez lortzen den salbamenari buruzko irakaspena, Abrahamen eredia jarriz argitzen du San Paulok (*2. ir.*). Bai, guk, kristauok, bai juduek eta bai musulmanek ere, sinestedunen gurasoa delako ohoratzen dugu Abraham.

B urtean

Jesusek aurkitzen zituen aurkakotasunak aipatzen ditu San Markosen Ebanjelioak. Gaurkoan kalumniaz erasotzen dutela aurkezten digu. Satanen aurka lortutako garaipena aldarrikatuz erantzungo dio Jaunak horri. (*Eb.*). Kristok deabruaren gain lortuko zuen garaipena munduaren hasieraren kontakizunean iragarria izan zen jadanik: emakumea tentaldian erori den arren, beraren ondorengo batek sugearen burua zanpatuko duela iragarri baitzuen Jainkoak orduan (*1. ir.*). Gutunean, San Paulok bere ahulezia eta sufrimenduak aipatzen ditu, eta nola eramaten eta gainditzen dituen esaten du, Kristo berpiztuagan duen fedeari esker (*2. ir.*).

C urtean

Ebanjelioak kontaktzen duen Naingo alargunaren semeari bizia itzuli izana, Kristo beraren piztueraren irudikapena da; baina aldi berean, Jaunaren errukizko keinua da, amari arreta eskainiz (*Eb.*). Elias profetak antzera jokatu zuen, Sareptako herrialde paganoko alargun behartsuaren larritasunaren aurrean abegi ona eskaini zionean (*1. ir.*). Berari konfiantza zor diotela aitortzeko, bere konbertsioaren kontakizuna egiten die San Paulok Galaziarrei gutunean: Berak hots egiten duen Ebanjelioa ez da, beraz, giza asmakizuna (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 2.** liburuko 265-273. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagraiotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa goastera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Jainkoaren errukia eskertzeko erarik bikainena, gu geu errukitsu izatea da, elkarren bizitza zaintzea. Eroriei eta sufritzen dutenei lagunduz betetzen dugu bizia zaintzeko betebeharrak. Gurtu dezagun orain, indartzen gaituen Jauna.

Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℞. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Zure indar sendatzaileak
gorde gaitzala, Jauna,
Zugandik bereizten gaituen gaiztakeriatik
eta gida gaitzala zuzentasun-bidean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

URTEAN ZEHARREKO XI. IGANDEA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gorets dezagun Jauna
eta denok batera bedeinka dezagun Haren izena.

Guztiak erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Zuzendariak jarraituko du:

Asteburuan, eguneroko lanetatik atsedean hartzeko dugun aldian, gorengo unea da kristauontzat Igandeko batzarrean gure fedea beste senideekin ospatzea. Hemen da Jesus gure erdian, bihotzera mintzo zaigu eta Ogi Santuan janaritzat ematen digu bere burua.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: Erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Oi Jainko, Zugan itxaroten dutenen indarra,
entzun bihotz onez gure otoitza;
eta, Zu gabe, gizakiaren ahulezia ez baita ezertarako gai,
emaguzu beti zeure graziaren laguntza;
zure aginduak betez,
Zuretzat atsegingarri izan gaitezen gogoz eta egitez.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A urtean

Jesusek bere apostoluei, misioa dela-eta emandako aholkuak irakurriko ditugu gaurko Ebanjelioan. San Mateok, lehenengo eta behin, Jaunak bertan behera utzia dagoen jendetzagana bidaltzen dituen Hamabien aukeraketa gogoratzen du (*Eb.*). Moises bidalia izan zen bezala, bidaliak dira apostoluak ere: itxaropenik gabe dauden gizakiei, Jainkoak bere herria osatu nahi duela iragartzeko (*1. ir.*). San Paulok dioskunez, Jainkoak maite gaituelako hil zen gugatik Kristo: beronen odolean Jainkoarekin adiskidetuak garenok, beraren bizitzan izango gara salbatuak eta goratuak (*2. ir.*).

B urtean

Bi parabola irakurriko ditugu gaurkoan Ebanjelioan: astiro baino tinko ernetzen den haziarena, eta bere adarretan txoriak hartzeraino hazten den mostaza-haziarena. Gaurko apaltasun-egoeraren orde z nagusituko den geroko erreinuaren egoera aintzatsua gogoratzen dute biek (*Eb.*). Jesusek, parabola horiek kontatzean, Ezekiel profetaren testua aipatzen zuela ikusarazten digu lehenengo irakurgaiak (*1. ir.*). San Paulok, bere ministerioan jasandako zailtasunak gogoratu ondoren, zerura joateko bere guraria adierazten du eta, gainera, fedean biziz Jaunaren esana egiteko ardura (*2. ir.*).

C urtean

San Lukasen Ebanjelioari errukiaren Ebanjelio deritzo; beste arrazoi batzuen artean, gaur irakurriko dugun orrialdeak eragiten dio horretara: barkatutako emakume bekatariaren kontakizuna jasotzen du (*Eb.*). Dena dela, Itun Zaharra bera ere, Jainko erukitsuaren presentziaz beteta dago: adibidez, Jaunak Davidi barkatu egin zion bere krimena, damutu zelako (*1. ir.*). Kristoganako maitasun sutsua aitortzen digu San Paulok gutunean: «Bere burua nigatik emateraino maitatu ninduen. Bizi naiz, baina ez naiz ni bizi, Kristo bizi da nigan» (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 2.** liburuko 295-303. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Karitatea adoretzen eta itxaropena sendotzen duen fedea erein du Jainkoak gudan. Jesusekin bat egiteak Jainkoaren nahia betetzen laguntzen digu. Adora dezagun pozik Sakramentu santua.

Hiru eratara egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Jainkoak, Espiritu Santuaren bidez, bere seme-alaba egin gaitu; horregatik, konfiantzaz, esan dezagun Kristok irakatsitako otoitza:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Jainkoaren seme-alaba garenez, eman diezaiogun elkarri senide-batasunaren ezaugarria.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du. Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Jauna, hartu dugun sakramentuak
fededunok Zurekin bat garela adierazten duen bezala,
egin dezala Elizaren batasuna.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

Oharririk egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

URTEAN ZEHARREKO XII. IGANDEA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiek aitaren egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Jaungoiko gure Aitak eta Jesu Kristo gure Jaunak eman diezagutela beren grazia eta bakea.

Guztiek erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Zuzendariak jarraituko du:

Kristauon egitekoa, Ebanjelioa bizi eta aldarrikatzea, Igandeko ospakizunean hartzen den indarrez errazten da; Jaunaren Hitzaren bidez ikasten baitugu zer egin behar dugun eta bere Gorputz Santua janez sendotzen zaigu fedea.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Jesu Jaunak igandea ospatzera dei egiten digu eta, horretarako, bihotz-berri gaitetzela eskatzen. Aitor ditzagun, beraz, geure bekatuak eta eska dezagun uste osoz Jainkoaren errukia.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, Aitagana garamatzan bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, herri guztiak argitzen dituen egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua eraberritzen duen bizia: Erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Izan dezagula beti, Jauna,
zure izenarekiko begirunea eta maitasuna,
ez baitituzu zeure eskutik behin ere uzten
zeure maitasunean sendo jarri dituzunak.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A urtean Ebanjelioa iragartzera bidaltzekoan, ez dezatela beldurrik izan esango die Jesusek Apostoluei, bera izango baitute euskarri Aitaren aurrean (*Eb.*). Gauza bera agindu zion «behartsuaren bizia gaiztoaren eskutik askatzen duen» Jainkoak Jeremias bere etsaiaren aurka (*1. ir.*). Elizak jatorrizko bekatua dela-eta sinesten duena funtsean gaur irakurriko dugun bigarren irakurgaiko testuan oinarritzen da. Hondamenean solidarioak (kideak) garela azpimarratuko du San Paulok, eta Jesu Kristok emandako grazian ere kideak garela aldarrikatuko du (*2. ir.*).

B urtean Lehenengo irakurgaietan, ekaitzaren barrutik hitz eginez, bera dela izadiaren jaun bakarra gogoratuko dio Jainkoak bere morroi Jobi (*1. ir.*). Jesusek, itsasoan altxatako ekaitza baretuz, jainkozko bere jatorriari buruz galdetzen jartzen ditu ikasleak (*Eb.*). San Paulok bere bizitzaren sekretua agertuko digu gaur: Kristoren maitasunak bereganatu du. Gizaki berri egin duen maitasun honek munduaren ikuspegi berria ematen dio: «Zaharrarenak egin du; berria hasi da» (*2. ir.*).

C urtean Ebanjelioan, Pedroren fede-aitorpenaren ondoren, Jesusek bere nekaldia iragarriko du eta norberaren gurutzea hartu eta jarraitzera dei egingo die bere ikasleei (*Eb.*). Nekaldiaren iragarpena kontuan izanik, lehenengo irakurgai bezala, Kristo gurutziltzatuaren aurreirudi den Zerbitzari nahigabetua dela-eta Zakariasek dakarren profetia ragarriko da (*1. ir.*). Eta San Paulok beste hau gogoraraziko digu: bataioaren bidez Kristori lotuta gaudenok gure artean izaki bakar bat osatzen dugula. Ezerk ez ditu banandu behar fedean Jainkoaren seme-alaba direnak (*2. ir.*). Gure arteko zatiketen gaintetik batasun hau onartzeko gai izango ote gara?

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 2.** liburuko 327-333. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagraiotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Fedeak laguntzen digu Jesusekin bat eginda bizitzen eta Jesus bezala besteentzat izaten. Jaunartzeak indar dezala gure espiritua Elizaren egintza horretan parte hartzeko: Berri Ona bazter guztietara eramateko. Eskertu dezagun, orain, dohaintzat ematen zaigun Jauna.

Hiru eratara egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitz batekin (80-93. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Jainkoak bere maitasuna isuri digu bihotzera, eman digun Espiritu Santuaren bitartez; beraz, fedez eta itxaropenez, esan dezagun:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Kristok elkarren senide egin baitu bere gurutzeaz; adiskidetzearen ezaugarri, emaiozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratu gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi gainean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

✠ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Kristoren Gorputz santuaz eta Odol baliotsuaz
berritu gaituzu, Jauna;
egizu, misterio santu honetan parte hartzeak
ekar diezagula egiazko erospena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

URTEAN ZEHARREKO XIII. IGANDEA

Hasiera

Batzarra bildua dagoela, Urtean Zeharreko aldiari dagokion sarrera-kantu egoki bat abestuko da. Kantua bukatzean, zuzendariak esango du:

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak aitaren egingo dute eta erantzungo:

℟. Amen.

Agurra (*Agurra kantuz egiteko doinuak, ik. 76. or.*).

Zuzendariak herria agurtuko du:

Gorets dezagun Jauna
eta denok batera bedeinka dezagun Haren izena.

Guztiak erantzungo dute:

℟. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Zuzendariak jarraituko du:

Pozik bizitzeko deia jasotzen dugu igandea ospatzean. Jesus ondoan dugu, gure bizitzan presente egiten da eta gure bizitza berarentzat gorazarre bihur dezagun nahi du. Esker onez oroi dezagun beraren heriotza eta piztueraren misterioa.

Damu-otoitza

Zuzendariak damurako deia egingo dio herriari:

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrean garela, bekaturako hilik bizi berrira piztu gaitezen.

Isilune laburra egingo da. Ondoren, zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek eskari hauek egingo ditu, esanez edo abestuz:

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren betea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behartsu egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera etorri zarena: Erruki, Jauna.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Damu-otoitza egiteko beste bi era ere badaude (77. or.).

Otoitza

Gero zuzendariak esango du:

Egin dezagun otoitz.

Eta guztiek, zuzendariarekin batera, otoitz egingo dute unetxo batean isilik.

Gero, zuzendariak, besoak zabaldu gabe, otoitza esango du.

Oi Jainko, seme-alabatzat hartu gaituzu maitasunez eta argiaren seme-alaba egin gaituzu; egizu, ez gaitzala inguratu gezurraren ilunpeak eta bizi gaitzela beti zure egiaren argi ederrean.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Irakurgaiak

Laguntzaileak, edo zuzendariak berak, herria esertzean Hitzaren liturgia girotzeko hitz hauek esan ditzake:

A urtean

Jesusek, berari jarraitzeko dena uztera Apostoluei gonbita egin ondoren, bera gogoz onartzen duten guztiei bere onespena agintzen die (*Eb.*). Lehenengo irakurra ikusten dugunez, era berdintsuan bedeinkatu zuen Jainkoak Eliseo profeta onartu zuen etxea (*1. ir.*). Kristoren heriotzak eta piztuera salbatu gaituztela irakatsi zigun San Paulok. Gaur, Bataioa dela misterio horretan sartzen gaituena, gogoratzen digu: sinestuna, urpean murgiltzean, Kristorekin hiltzen da, eta, uretatik irtetean, harekin berpizten (*2. ir.*).

B urtean

Ebanjelioak Jairoren alabaren piztuera kontatzen digu (*Eb.*). Heriotzaren gain Kristok lortu duen garaipen hau lehenengo irakurra egiten den agerpenaz argitzen da: «Heriotza ez zuen Jainkoak egin... Deabruaren inbidiaz sartu zen heriotza munduan» (*1. ir.*). Kristogan berpiztuko garela itxaroten dugu, haren heriotzak bekatutik askatu gaituelako. Gutunean, Jerusalemgo senideei laguntzera dei egiten die San Paulok Korintoko kristauei (*2. ir.*). Behartsuari laguntzea, Kristori jarraitzea da.

C urtean

San Lukasen Ebanjelioaren bigarren zatia irakurtzen hasiko gara: Jerusalemerako igoera, Jesusek nekaldia jasango duen hirirako igoera. Apostoluzarako deia gogorra dela azpimarratu nahi du gaur Jesusek: berak dei egiten duenean, berehala eta atzera begiratu gabe jarraitzea nahi du (*Eb.*). Horrela jarraitu zion Eliseok, lehenengo irakurgaiak dioenez, Elias profetaren bidez Jainkoak egindako deiari, bere idiak soroan utziz (*1. ir.*). Gure arteko zenbatek dute gaur egun dena uzteko adorea? Juduen legearen betebeharretatik aske daudela gogoratuko die San Paulok Galaziarrei, baina kristau-askatasuna besteen zerbitzura jarri behar dela maitasunez (*2. ir.*).

*Ondoren irakurgaiak egingo dira, Eukaristian bezala. **IRAKURGAIAK 2.** liburuko 359-367. orrialdeetan daude igande honetakoak. Urteko zikloari dagozkionak hartu. Beste laguntzailerik ez badu, zuzendariak egingo ditu irakurgaiak. Bestela, laguntzaileak egingo ditu irakurgaiak, eta zuzendariak aldarrikatuko du Ebanjelioa; inolako agurrik egin gabe, esango du: «Entzun senideok, Jesu Kristoren Ebanjelioa San ...ren liburutik».*

Ebanjelioaren ondoren homilia irakur dezake zuzendariak (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Fede-aitormena

*Jarraian **Sinesten dut** esango da, guztiak zutik daudela (78-79. or.).*

Jainkoaren herriaren otoitza

Jarraian Jainkoaren herriaren otoitza egingo da (Ik. MINTZO ETA KANTU).

Eskerrak emateko ohikunea

Jainkoaren herriaren otoitza bukatuta, eskerrak emateko ohikunea egingo da honela: aurrena, Jauna ekarriko du laguntzaileak edota zuzendariak berak sagrariotik aldare gainera. Orduan zuzendariak Jainkoa gorestera eta berari eskerrak ematera gonbidatuko du:

Jainkoaren seme-alaba izateak egiazko askatasuna ematen digu; maitatzeko askatasuna, bizia eskaintzeko eta beti itxaropentsu bizitzeko askatasuna. Eukaristiako Ogi santua hartu aurretik eskertu dezagun dohain miragarri hau.

Hiru eratarata egin daiteke esker-otoitza:

- 1. Salmo-kanta egoki batekin.*
- 2. Gorazarre edota kantika batekin.*
- 3. Letania-erako esker-otoitza batekin (80-93. or.).*

Jaunartzeko ohikunea

Gero, zuzendariak, zutik Gure Aita otoitzari sarrera egingo dio:

Familia bereko anai-arreba garenez, esan diezaiogun elkarturik guztion Aitari:

Eta denek batera abestu edota esango dute:

Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen baina atera gaitzazu gaitzetik.

Zuzendariak elkarri bakea ematera gonbidatu ditzake batzarkideak:

Kristo berpiztuaren Espirituaz, emaozue bakea elkarri.

Guztiek, leku bakoitzean ohi denez, bakea emango diote elkarri.

Ondoren, zuzendariak belaunikatuz ostia sagaratua gurtuko du eta, eskuan harturik, kopoi ganean pixka bat jaso daukala, herriari erakutsiko dio, esanez:

Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.
Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

Eta, herriarekin batera, esango du:

℞. Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko;
baina esazu hitz bat eta sendatuko naiz.

Zuzendariak berak jaunartuko du, isilka esanez:

Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako.

*Eta berak bakarrik, edo behar izanez gero, laguntzaileekin gure Jauna emango du.
Bitartean, jaunartze-kantu egoki bat abestuko da.*

Gure Jauna banatzea bukatu eta sagraiora jaso ondoren, isilune bat egingo dute denek eserita.

Jaunartze ondorengo otoitza

Isilunea bukatzean, jaunartze ondorengo otoitza esango du zuzendariak:

Eskaini eta hartu dugun opari santuak biziberri gaitzala, Jauna, maitasunean etengabe Zurekin bat eginik, beti iraungo duten fruituak eman ditzagun.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

℟. Amen.

Bedeinkapen-eskaria *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 94. or.).*

Oharrik egin behar balitz, orain egingo da.

Ondoren zuzendariak, Jainkoaren bedeinkapena eskatuko du, aitaren eginez eta esanez:

Jaunak bedeinka gaitzala
eta, gaitz guztietatik zaindurik,
eraman gaitzala betiko bizira.

℟. Amen.

Edota:

Jaun ahalguztidun errukitsuak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak,
bedeinka gaitzala eta zaindu.

℟. Amen.

Azken agurra *(Hau kantuz egiteko doinuak, ik. 95. or.).*

Zuzendariak herriari azken agurra egingo dio:

Zoazte Jaunaren bakean.

℟. Eskerrak Jainkoari.

ERANSKINAK

I. HASIERAKO AGURRA KANTUZ EGITEKO DOINUAK

*Zuzendariak***1**

∇. Jaun-goi-ko gu-re Ai-tak e-ta Je-su Kris-to gu-re Jau-nak



e-man di-e-za-gu-te-la be-ren gra-zi - a e-ta ba-ke-a.

Denek

℞. Be - dein - ka - tu - a Jaun - goi - ko -



a, Je-su Kris-to gu-re Jau-na-ren Ai - ta.

*Zuzendariak***2**

∇. Gorets deza-gun Jau - na, eta denok batean bedein-ka



de - za-gun ha-ren i - ze - na.

Denek

℞. Be-dein-ka-tu-a Zu, Jau-na, o-rain e-ta be-ti.

II. DAMU OTOITZERAKO BESTE ERA BATZUK

1.

Isilune laburra egingo da. Eta, denek batera, beren bekatuak aitortuko dituzte:

Aitortzen diot Jainko guztiz ahaltsuari, eta zuei ere bai, ene senideoi, bekatu egin dudala gogapen, hitz eta egitez, eta eginbeharrak ez eginez; *Eta, bularra joz, esango dute:* bai, bekatari naiz. Horregatik eskatzen diet Andre Maria beti Birjinari, aingeru eta santu guztiei eta zuei ere bai, ene senideoi, otoitz egin diezaiozuela nire alde Jainko gure Jaunari.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟.** Amen.

Eta jarraituko du:

℣. Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

℣. Kristo, erruki. ℟. Kristo, erruki.

℣. Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

2.

Isilune laburra egingo da. Eta, elkarrizketa moduan esango da:

℣. Erruki, Jauna. ℟. Bekatu egin dugu eta.

℣. Agertu guri, Jauna, zeure bihotz ona. ℟. Eta salba gaitzazu.

Zuzendariak barkamen-eskari honekin bukatuko du:

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟.** Amen.

Eta jarraituko du:

℣. Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

℣. Kristo, erruki. ℟. Kristo, erruki.

℣. Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

III. FEDE AITORMENA

1.

Sinesten dut Jaungoiko bat bakarra,
Aita guztiz ahaltzua, zeru-lurren Egilea,
ageri diren eta ez diren guztiena.

Sinesten dut Jaun bat bakarra, Jesu Kristo,
Jainkoaren Seme bakarra,
mende guztiak baino lehen Aitagandik sortua.
Jainkoagandik Jainko, argitik argi,
egiazko Jainkoagandik egiazko Jainko;
sortua, ez egina, Aitaren izate berekoa.
Haren bidez dira eginak gauza guztiak.
Gu gizakiongatik eta gu salbatzeko jaitsi zen zerutik.

Ondorengo hitzetan, gizon egin zen arte, denak makurtu egingo dira.

Eta, Espiritu Santuaren egitez
Maria Birjinagandik gorputz harturik, gizon egin zen.
Pontzio Pilatoren menpean gugatik gurutzeratua izan zen,
oinazetan hila eta hobiratua.
Hirugarren egunean piztu zen, Liburu Santuak esan bezala,
zerura igo eta Aitaren eskuinaldean jarririk dago.
Aintzaz etorriko da berriz biziak eta hilak epaitzera,
eta haren erregetzak ez du azkenik izango.

Sinesten dut Espiritu Santua, Jauna eta bizi-emailea,
Aitagandik eta Semeagandik dena;
Aitarekin eta Semearekin batean agur eta gorespen berbera
hartzen duena eta profeten ahoz hitz egin zuena.

Sinesten dut Eliza: bat, santua, katolikoa eta Apostoluena.
Aitortzen dut Bataio bakarra, bekatuak barkatzeko.
Itxaroten dut hildakoen piztuera
eta datorren munduko bizia. Amen.

2.

Sinesten dut Jainko Aita ahalguztiduna,
zeru-lurren Egilea.

Sinesten dut haren Seme bakarra, Jesu Kristo gure Jauna,

Ondorengo hitzetan, Birjinagandik jaio zena arte, denak makurtu egingo dira.

Espiritu Santuaren egitez sortu
eta Maria Birjinagandik jaio zena;
Pontzio Pilatoren menpean nekaldua;
gurutzean iltzatua, hila eta hobiratua izan zena;
infernuetara jaitsi eta hirugarren egunean
hilen artetik piztu zena;
zeruetara igo eta Jainko Aita ahalguztidunaren
eskuinaldean jarririk dagoena;
handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.

Sinesten dut Espiritu Santua,
Eliza santu katolikoa, santuen elkartasuna,
bekatuen barkamena,
haragiaren piztuera eta betiko bizia. Amen.

IV. LETANIA ERAKO ESKER OTOITZAK

1. Aintza Zuri, Jauna

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Eskerrak ematen dizkizugu, Jaungoiko gure Aita,
Biziaren ogia den zure Seme Jesu Kristorengatik.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak *Denek*

∇.Ain - tza Zu - ri, Jau - na. ℞ Ain - tza Zu-
 ri, Jau - na, e - ta es - ke - rrak Zu - ri!

Zuk beti prest dituzu guztiontzat
 behar ditugun janari-edariak,
 eta orain gertu daukazu guretzat
 betiko bizia ematen duen ogia,
 Jesu Kristo zure Semearen gorputz santua.

∇. Aintza Zuri, Jauna.

℞. **Aintza Zuri, Jauna, eta eskerrak Zuri!**

Elkarrekin jango dugun Eukaristiako ogia
 gari-ale askotatik egina izan den bezala,
 horrela gu ere, zure Eliza osotzen dugunok,
 sinesmen eta maitasun berak bil gaitzala
 lurraren alde batetik besteraino
 zure Erreinuko batasunean.

∇. Aintza Zuri, Jauna.

✠. **Aintza Zuri, Jauna, eta eskerrak Zuri!**

Eskerrak, bai, Jaungoiko gure Aita,
baden, badatorren eta etorriko den
zure Seme, Jesu Kristo, gure Jaunarengatik.

∇. Aintza Zuri, Jauna.

✠. **Aintza Zuri, Jauna, eta eskerrak Zuri!**

2. Bedeinkatua Zu, Jauna

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Zuk egin duzun guztia
gure eskuetan jarri duzu, Jauna,
itxaro dugun lur berria bideratzen
Zurekin batera lan egin dezagun.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak



∇. Ho-rre-ga - tik, be-dein-ka - tzen zai-tu - gu:

Denek



✠. Be-dein-ka-tu - a Zu, Jau - na, gu-re Jain-ko - a!

Zure Seme Jesu Kristo eredu jartzen diguzu
eta haren antzera hobeak izaten saiatzera dei egiten.
Beraren bidez eta berarekin gizaki berri eginik,
betiko biziaren betera eraman nahi gaituzu.

∇. Horregatik, bedeinkatzen zaitugu:

⌘. **Bedeinkatua Zu, Jauna, gure Jainkoa!**

Zure Elizaren batasunean parte izatera
deitu gaituzu,
Zuk agindutako gizadi berria
eraikitzen joan gaitezen.

∇. Horregatik, bedeinkatzen zaitugu:


⌘. **Bedeinkatua Zu, Jauna, gure Jainkoa!**

3. Eskerrak Zuri, Jainko

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Eskerrak Zuri, Jainko gure Aita:
zure Seme Jesu Kristo,
Espiritu Santuaren egitez,
gure giza haragiz jantzita bidali diguzu.
Eta hura ikusirik,
harengan Zu ikusi ahal izatea eman diguzu.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du -edota esango-, eta denek erantzungo dute:



∇. Ho - rre - ga - tik, bihotzez e - sa - ten di - zu - gu:



⌘. Es-ke - rrak Zu - ri, Jain - ko, gu - re Ai - ta!

Jesu Kristo, Gizaki berria, Espirituaren indarrez,
on egiten, gaitzak hartutakoak sendatzen
eta behartsuei Berri Ona hots egiten igaro zen.
Eta guk, haren antzeko izanik,
haren urratsei jarraitzea nahi duzu.

∇. Horregatik, bihotzez esaten dizugu:

✠. **Eskerrak Zuri, Jainko, gure Aita!**

Zure Semea guregatik heriotzara emanik,
Espirituaren indarrez hilen artetik berpiztu
eta diren guztien Jaun ezarri duzu.
Eta guri berarekin betiko bizi ahal izatea eman diguzu.

∇. Horregatik, bihotzez esaten dizugu:

✠. **Eskerrak Zuri, Jainko, gure Aita!**

4. Aintza Aitari

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Goresten eta bedeinkatzen zaitugu, Jainko gure Aita,
zure Seme Jesu Kristoren bitartez, Espiritu Santuaren batasunean.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak *Denek*

∇. Es-ke-rrak Zu-ri, Ai-ta o-na. ✠. Ain-tza Ai-ta - ri, e -

ta Se-me-a - ri, e - ta Es-pi - ri - tu San-tu - a - ri!

Zugandik hartu ditugun gauza on guztiengatik
eta gizakiari eman diozun Espirituaren dohainarengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Lurra emankor egiten duten eguzki eta urarengatik,
eta gizakiaren lanak sortu dituen
tresna eta aurrerapen guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Gure familietako maitasunarengatik
eta giza bizitzako lagunarte-
eta solidaritza-ezaugarri guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Zure Seme Jesu Kristoren irudiaren arabera,
gu zure antzeko nahi gaituzulako:
santu, on-on eta errukitsu,
eta hori lortzeko ematen dizkiguzun grazia guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Zure Seme Jesu Kristo gurutziltzatu eta berpiztuarengan,
gure atsekabe eta pozaldiek, gure ezbehar eta garaipenek,
argi berria hartzen dute.
Salbamen-misterio horren ondorio pozgarri guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

Zure Seme Jesu Kristoren erospenari esker,
 izadi osoa erdiminetan dago
 zeru berriak eta lur berria itxaroten.
 Zure dohain dugun betiko biziaren itxaropenak
 guregan eta munduan eragiten dituen
 giza aurrerapide eta maitasun-egintza guztiengatik.

✠. Eskerrak Zuri, Aita ona.

✠. **Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari!**

5. Gora Zu: I

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Jesus Jauna,
 Zu zara ilunpeak desegiten dituen Argia.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak *Denek*

✠. Ho - rre - ga - tik e - sa - ten di - zu - gu: ✠. Go - ra
 Zu, go - ra Zu, be - dein - ka - tu - a Zu, es - ke - rrak Zu - ri!

Zu zara gezur-bidetik aldentzen gaituen Egia.

✠. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure pausoak zuzentzen dituen Bidea.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure gosea asetzen duen Ogia.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure gaitzak sendatzen dituen Osasuna.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure heriotza garaitzen duen Bizia.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu zara gure betiko bizia ziurtatzen duen Piztuera.

∇. Horregatik esaten dizugu:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

6. Gora Zu: II

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Zuri, Jesus Jauna, zuzentzen dizugu gure otoitza.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du -edota esango-, eta denek erantzungo dute:



∇. En - tzun, Jau - na, gu - re go - ra - pe - na.

Denek

Go - ra Zu, be-dein-ka-tu-a - Zu, es-ke-rrak Zu - ri.

Zu zara Aitaren Seme bakarra.

∕. Entzun, Jauna, gure gorapena:

℞. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zuk, gizakia salbatzearren, giza izaera hartu zenuen,
Birjina Amaren sabelean.

∕. Entzun, Jauna, gure gorapena:

℞. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zuk, heriotzaren eztena garaiturik,
zeru-erreinuko ateak ireki dizkiezu fededunei.

∕. Entzun, Jauna, gure gorapena:

℞. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zu, Aitaren eskuinaldean jarririk zaude,
betiereko aintzan.

∕. Entzun, Jauna, gure gorapena:

℞. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Sinesten dugu berriz etorriko zarela
diren guztien Epaile eta Jaun.

∕. Entzun, Jauna, gure gorapena:

℞. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Zatoz eta lagundu
zeure odol baliotsuaz erosi dituzunei.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

Egizu, betiereko aintzan
zure santuekin batean bizitzera irits gaitetzela.

∇. Entzun, Jauna, gure gorapena:

✠. **Gora Zu, bedeinkatua Zu, eskerrak Zuri!**

7. Zorionekoak, Jauna

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Senideok: Egin diezaiogun otoitz
gizaki guztien atsedean eta poz-iturri den Jesus Jaunari,
eskerrak emanez,
bere erreinuko mahaira deitu gaituelako,
eta gizadi osoaren alde eskatuz.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak Denek

∇. Zo-ri-o-ne-ko-ak. ✠. Zo-ri-o-ne-ko-ak, Jau-

na, zu-re e rrei-nu-ko ma-hai-ra dei-tu-ak.

Jesus Jauna,
Zuk gurutzean zeure burua eskaini zenuen,
gizon eta emakume guztiok bizia izan dezagun;

eta lantzak zulatutako zure bihotzetik
odola eta ura isuri ziren, handik zure Eliza sor zedin;
egizu Eliza hau santu eta errugabe
eta zure maitasunaren ezaugarri bizi.

✠. Zorionekoak.

✠. Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!

Jesus Jauna, gure bake eta adiskidetzaille,
gurutzeaz gorrotoa ezereztu egin zenuen
eta, zeure baketzearen bidez,
guztiok gizaki berri egiten gaituzu:
isur ezazu zeure Espiritua
gizadi osoa familia bat bera izan dadin
maitasunean eta batasunean.

✠. Zorionekoak.

✠. Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!

Jesus Jauna, gure bizi eta berpizte,
nekatu eta lanpetuentzat atsedean zara Zu:
bakardadearen, oinazearen
edo etsipenaren zamapean daudenek aurki zaitzatela,
zure erreinuaren pozean guztiok elkaturik,
esker onez gorets zaitzagun.

✠. Zorionekoak.

✠. Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!

Jesus Jauna, gizaki guztien argi eta salbamen,
Zuk dituzu betiko biziaren hitzak
eta Zu zaitugu zorion betera daraman bidea;
egizu, fedea argiturik biziaren hitz horiek entzun ditzagula
eta gure bizitzan zintzo bete.

✠. Zorionekoak.

✠. **Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

Jesus Jauna, Zuk heriotza ezereztu eta bizi berria ematen diguzu:
eskerrak ematen dizkizugu,
bizi-egarria ase ahal dezagun
bizia zabaldu eta laguntza ematen diguzulako;
egizu, biziera berri batean ibil gaitezela.

✠. Zorionekoak.

✠. **Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

Jesus Jauna, zeru-lurrek goستن zaituzten Jauna:
har ezazu gaur,
elkarte honek, Eliza osoarekin batean,
gogoz eta pozik eskaintzen dizun gurtza:
eta egizu, orain lurrean gurtzen zaitugunok
gorets zaitzagula betieran zeruan.

✠. Zorionekoak.

✠. **Zorionekoak, Jauna, zure erreinuko mahaira deituak!**

8. Bai zorionekoak

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Senideok: egin diezaioGUN otoitz ogi bizia den Jesu Kristori.

—Kristo, itun berri eta betikoaren apaiz, gurutzean opari ezin hobe eskaini zenion Aitari: erakutsiezaguzu opari bera Zurekin eskaintzen.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak *Denek*

✕. Bai zo - ri - o - ne - ko - ak. ✕. Bai zo - ri - o ne - ko - ak, Jau-
 na, zu - re e - rrei - nu - an o - gi - a jan - go du - te - nak!

—Kristo, bakearen eta zuzentasunaren Errege handi, Zuk ogi-ardoak sagaratu zenituen zeure eskaintza adierazteko: ogi beraz janaritzen dituzunak, zure gorputzean bat egin ditzazula.

✕. Bai zorionekoak.

✕. **Bai zorionekoak, Jauna,
zure erreinuan ogia jango dutenak.**

—Kristo, zerutik jaitsitako mana, zure Gorputz-Odolez janaritzen duzu Eliza: janari honen indarrez ibil gaitzela.

✕. Bai zorionekoak.

✕. **Bai zorionekoak, Jauna,
zure erreinuan ogia jango dutenak.**

—Kristo, ikusten ez zaitugun gure otorduko mahaikide, atarian zaudena eta ate joka ari zarena, guregana etor zaitezela eta elkarrekin jan dezagula.

✕. Bai zorionekoak.

✕. **Bai zorionekoak, Jauna,
zure erreinuan ogia jango dutenak.**

9. Kristo, zeruko ogi

Zuzendariak hasiko du otoitza, esanez:

Kristok bere afarira dei egiten digu guztioi,
eta afari horretan bere Gorputz-Odolak ematen dizkigu,
munduaren bizirako. Otoitz egin diezaigun berari.

Zuzendariak, nahiz beste laguntzaile batek abestuko du –edota esango–, eta denek erantzungo dute:

Zuzendariak Denek

∴. De - nok ba - te - an es - ka - tzen di - zu - gu. ✠. Kris -
to ze - ru - ko o - gi, e - ma - gu - zu be - ti - ko bi - zi - a.

—Kristo, Jainko biziaren Seme, eukaristi afaria zure oroigarri egiteko agindu zenigun: emaguzu zure misterioak zintzo ospatzea zure Eliza aberats dadin.

∴. Denok batean eskatzen dizugu:

✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

—Kristo, Goi-goikoaren apaiz bakar, apaizei eman diezu sakramentuak ospatzeko eginkizuna: egizu, beren bizitzan bete dezatela, sakramentuetan egiten dutena.

∴. Denok batean eskatzen dizugu:

✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

—Kristo, zeruko mana, ogi beretik jaten dutenak gorputz bat egiten dituzu: indar itzazu, Zuregan sinesten dutenen artean, bakea eta elkertasuna.

✠. Denok batean eskatzen dizugu:

✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

—Kristo, zeruko sendagile, zeure ogiaz hilezkor egiten gaituzu, eta piztueraren itxaropenez betetzen: emaezu gaixoei osasuna eta bekatariei uste ona.

✠. Denok batean eskatzen dizugu:

✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**


—Kristo, berriro etorriko zaren Errege, zure heriotza adierazten duten misterioak, Zu etorri arte ospatzeko agindu diguzu: egizu, Zuregan hildako guztiak zure piztueran piztu daitezela.

✠. Denok batean eskatzen dizugu:


✠. **Kristo, zeruko ogi, emaguzu betiko bizia.**

V. BEDEINKAPEN ESKARIA KANTUZ EGITEKO DOINUA

1 *Zuzendariak*




∇. Jaunak bedeinka gai-tza - la e-ta gaitz guztietatik




zaindurik eraman gaitzala betiko bi - zi - ra. **℞**. A - men. *Denek*

2 *Zuzendariak*



∇. Jaun ahalguztidun erru-ki-tsu-ak, Ai-tak, eta Semeak, eta



Espiritu Santuak, bedeinka gaitzala e-ta zain-du. **℞**. A-men. *Denek*

VI. AZKEN AGURRA KANTUZ EGITEKO DOINUAK

1 *Zuzendariak*

Denek ∇. Zo - az - te Jau-na - ren ba-ke - an.

℞. Es - ke - rrak Jain - ko - a - ri.

2 *Zuzendariak*

∇. Zo - az - te Jaunaren i - ze - ne - an e - ta ba - ke - an.

Denek

℞. Es - ke - rrak Jain - ko - a - ri.

